



**ARANTZako UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 634 192  
arantza.udala@arantza.eu  
www.arantza.eu

## 2014KO AZAROAREN 6KO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohiko bilera.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2014.11.06.  
**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Ander Almandoz Indacoechea jn.  
Zinegotziak:  
Koldobike Gorostiza Uriguen and.  
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.  
Mikel Leiza Etxeberria jn.  
Teodoro Pikabea Zubieta jn.  
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Inor ere ez.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko aktaren onspena.
- 2.-Cornelio Ubiria Leiza jauna: trukaketa eskaera.
- 3.-Jose Benito Lizardi Bereau jaunak aukeztutako idatzia.
- 4.-Jose Antonio Bereau jaunak eta M.Jesus Echeverria andreak Larreta alderdiko bidea mugatzeko akordioari buruz aurkeztutako idatzia.
- 5.-Felipebaita etxeko obrei buruz.
- 6.-2015. urteko tipoak, tasak eta prezio publikoak.
- 7.- Hirigintzako tramitazioen tasak arautzen dituen ordenantza.
- 8.-Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa xehekatua.
- 9.-AEK: Korrikaren aldeko laguntza eskaera.
- 10.-Alkatearen ebazpenak.
- 11.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONSPENA.**

2014ko urriaren 3an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

## **2.-CORNELIO UBIRIA LEIZA JAUNA: TRUKAKETA ESKAERA.**

Ikusirik Cornelio Ubiria Leiza jaunak aurkeztutako eskaera 6. poligonoko 336. lur zatiaren azalera 1. poligonoko 290. lur zatiarekin trukatzeko, horrela 1. poligonoko 89. lur zatian duen borda inguruan lurra partikularra lortzeko, ingurua guztia komunala denez.

Kontuan hartuz horretarako trukaketa espedientea egitea ez dela beharrezkoa eta eskatzen ahal duela herri lurra erabiltzeko, kanona bat ordainduz, eta indarrean dagoen ordenantzaren arabera.

Kontuan hartuz horrelako eskaerak suposatzen duen aurrekariak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Cornelio Ubiria Leiza jaunak aurkeztutako trukaketa eskaera ez onartzea aipatutako arrazoiengatik.

2) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

## **3.-JOSE BENITO LIZARDI BEREAU JAUNAK AURKEZTUTAKO IDATZIA.**

Gai hau mahai gainean uzten da udal arkitektoei eskatutako txostena hartu arte.

## **Ander Almandoz Indacoechea jauna ateri da bilera aretotik.**

## **4.-JOSE ANTONIO BEREAU JAUNAK ETA M.JESUS ECHEVERRIA ANDREAK LARRETA ALDERDIKO BIDEA MUGATZEKO AKORDIOARI BURUZ AURKEZTUTAKO IDATZIA.**

Arantzako Udalak 2014ko irailaren 4an erabaki zuen Larretako alderdiko bidearen mugaketa egitea (5. poligonoko 560, 561, 562, 564, 565, 567, 605, 604, 603, 602 eta 729 lur zatien artekoa), gastoa onartzea, akordioa bideak ukitzen dion jabe guztiei eta finka horien gainean errotutako eskubide errealean titularrei berri ematea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta iragarki oholean iragarkia argitaratzea eta ondorengo 40 egunetan interesatuek beren eskubideak defendatzeko egoki deritzen dokumentu guztiak aurkezteko epea irekitzea. Epe hori iraganik, ez da agiri edo alegaziorik onartuko eta erabaki hau eta mugaketa egiteko eguna eta tokia Udalaren iragarki oholean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Aipatutako iragarkia 2014ko irailaren 29ko 190. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, zehaztu mugaketa egiteko eguna eta ordua: 2014ko abenauaren 11n, goizeko 10,00etan.

Ondoren, Jose Antonio Bereau Macicior jaunak eta Maria Jesus Echeverria Agesta andreak 2014ko urriaren 22an aurkeztutako idatzian, martxoaren 24ko bileran Arantzako Udalak egindako proposamena onartzea eskatzen dute, hau da, Larretako bidea anulatzea eta lekuz aldatzeko trukaketa berriro ere planteatzea.

Ikusirik orain arte Udalak egindako gastoa (Jabetza Erregistrokoa eta Carlos Loizu teknikariena).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Jose Antonio Bereau Macicior jaunak eta M.Jesus Echeverria Agesta andreak egindako proposamena onartzea orain arte Udalak egindako gastoa euren kargu hartzeko baldintza pean.



- 2) Hala izanik bilera bat egitea proposamena aztertzeko.

**Ander Almandoz Indacoechea jauna bueltatu da bilera aretora.**

### **5.-FELIPEBAITA ETXEKO OBREI BURUZ.**

Arantzako Alkateak 2013ko irailaren 5eko 62. ebazpenaren bidez Felipebaita etxearen jabeei teiltatua moldatzeko obra baimena ematea ebatzi zuen, aurkeztutako eskaera, proiektua eta honen eranskina ((Fernando Orset Mauleon arkitektoak egina eta 2013ko maiatzaren 9an eta 2013ko uztailaren 22an Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialan bisatuak) eta Arantzako Arau Subsidiarioen arabera eta Udaleko arkitektoen txostena betetzeko baldintza pean, hau da, obra amaitzean lanen likidazio berria aurkeztea aurrekontuan falta diren partidekin osatuz eta Nafarroako Gobernuako Ingurumen Saileko Hondakinen Kudeaketan listan 1.000,00 euroko bermearekin izena emanda dagoen eraikitzaile batekin obra emango denaren bermea aurkeztea.

Obra hasi ondoren proiektuan adierazitako altuera nabariki gailentzen zuen (Udalak baimendu duela 1,80 metroko altuera, hau da, teiltatuaren tarimaren azpialdeko altuera maximoa 1,80 metro izatea eta emandako altuera gehiagoa zen) eta emandako altuera Arantzako Arau Subsidiarioekin bateraezina zenez obra geldiarazteko eta botatzeko agindua eman zen.

35/2002 Lurralde Antolamendua eta Hirigintza Foru Legearen 212.5 eta 212.13 artikuluen arabera, egindako obra hirigintzako lege hauste larria da eta honi 6.000 eurotik 60.000 eurora bitarteko isuna jartzen ahal da.

35/2002 Lurralde Antolamendua eta Hirigintzako Foru Legearen 217.2 artikuluen arabera, hirigintza arloko arau-hauste baten errudunen erantzukizuna arintzeko inguruabarra bat izaten ahal da.

Ander Almandoz Indacoechea jauna isuna jartzeko kontrako botoa eman du.

Koldobike Gorostiza Uriguen andrea, Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jauna, Mikel Leiza Etxeberria jauna, Teodoro Pikabea Zubieta jauna eta Jose Ignacio Madariaga Vergara jauna isuna jartzeko botoa eman dute.

Ondorioz, ERABAKI DUTE:

1) M.Isabel Taberna Vergara andreari, Esteban Agesta Larrechea jaunari eta Jose Luis Baquedano Altamira jaunari zehapena jartzeko espedienteari hasiera ematea aipatutako guztietan oinarrituta.

2) Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002ko abenduaren 20ko Foru Legearen 211. artikuluen arabera lege hauste larria jartzea proposatzea, eta horren barne, 6.000,00 eurokoa izatea, hau da, bere gradu ttikienean.

3) Interesatuei jakinaraztea, beti ere, zehapena gutxitzeko aukera izanen dutela aipatutako legearen 218. artikuluan adierazten diren baldintzak betetzen badute.

4) Espediente honi alegazioak aurkezteko hamabost lan eguneko epea ematea euren eskubideen defentsan, akordio hau eta instruktoreak prestatu duen kargu plegua hartu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

5) Udaleko idazkaria izendatzea espediente honen idazkaria eta alkatea izatea prozedura hau ebazteko organoa.

6) Jakinaraztea akordio hau tramitezko ekintza bat dela eta ezin dela errekurtsorik aurkeztu.

7) Jakinaraztea ere Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.4 artikulua arabera, 6 hilabeteko epea dagoela prozedura ebatzi eta jakinarazteko eta horren ezean prozedura iraungituko dela.

#### **6.-2015. URTEKO TIPOAK, TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK.**

Aztertu ondoren indarrean dauden karga tipoak, tasak eta prezio publikoak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Orain arteko karga tipoak, tasak eta prezio publikoak mantentzea eta ez igotzea.

**Jose Ignacio Madariaga Vergara jauna joan da bileratik.**

#### **7.- HIRIGINTZAKO TRAMITAZIOEN TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.**

Hirigintzako txostenak arautzen dituen ordenantza ikusirik.

Aho batez, eta legeak eskatzen duen gehiengo izanik, ERABAKI DUTE:

1) Hirigintzako txostenak arautzen dituen ordenantza fiskala hasiera batez onartzea.

2) Erabaki hau jendaurrean jarriko da 30 egunez iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina, herritarrek eta interesatuek egoki juzgatzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten.

#### **8.-ARANTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA XEHEKATUA.**

Gai hau mahai gainean uzten da hobeto aztertu arte.

#### **9.-AEK: KORRIKAREN ALDEKO LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusirik AEK-k aurkeztutako idatzia diru laguntza eskatuz Korrikaren 19. kanpaina antolatzeke.

Kontuan hartuz Bortzirietako Euskara Mankomunitateak aurreikusia duela laguntza ematea 2014. aurrekontuan.

Kontuan izanik Arantzako Udala Bortzirietako Euskara Mankomunitateko kidea dela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Diru laguntzarik ez ematea aipatutako arrazoirengatik.

#### **10.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2014ko 65. ebazpenetik 69. arte).

#### **11.-ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira izan.



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 634 192  
arantza.udala@arantza.eu  
www.arantza.eu

Bertzerik gabe, gaueko 21:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Ander Almandoz Indacoechea.

